

9. FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresek ondo eta modu produktiboan lan egin dezaten, faktore asko hartu behar dira kontuan. Horrela, gure materiala eta gure gauza elektronikoak askoz eraginkorragoak izango dira eta bezeroak askoz ere gusturago egongo dira.

Gure produktua, ibilian kargatzen den mugikorra, ikusteko eta gure bezero guztiek ulertzeko, ezinbestekoa da jakitea zer produktu ari diren erosten. Horretarako, webgune erraz bat egin dugu, erosleek zalantzak argitu ditzaten. Gainera, metodo honen bidez, gure ideia eta gure pentsaera azaltzea eta gailuen merkatuan harrera ona izatea lortuko dugu.

Halaber, ezinbestekoa da bezeroekin komunikazio-kanal bat izatea zalantzak argitzeko eta zerbitzua ahalik eta onena izateko. Bezeroak gustura egon behar du gure zerbitzuarekin, ahoz ahoko funtziona dezan. Ahoz ahokoa da bezeroek gure produktuaz ongi hitz egitea hurbilen dituzten pertsoneri. Gure produktuaz ondo hitz egitean, probatu egin nahi dituzte.

Gure web orria: <https://sites.google.com/iesbalmasedabhi.com/azb/inicio>

Bestalde, oso garrantzitsua da produktuek zer arazo dituzten jakitea, konpondu ahal izateko. Produktu berria denez, merkatura ateratzean arazo txikiak sortzen dituzte, eta garrantzitsua da zein diren jakitea. Horretarako, konponketa-zerbitzu bat izan behar da, produktua %100 fidagarria izan arte. Zerbitzu hori web orrian jarriko dugu. Laburbilduz, web orria beharrezkoa da erosketa eta komunikazioa errazteko